

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik eta behin, gure proiektua aurrera ateratzeko behar ditugun gauzak ekoizten dituzten enpresekin kontaktatu dugu. Alde batetik, plastikozko kaxa egingo duen enpresa bat topatuko dugu eta prototipoak egiteko eskatuko diogu behin betikoa egin arte. Beste alde batetik, aterkia lehortzeko beharrezkoa den motorra fabrikatuko duen enpresa bat bilatuko dugu. Bestetik, babes termikoa, filtroa, aire-hodiak eta energia-iturria salduko dizkigun beste enpresa bat topatu beharko dugu.

Behin prototipoa egin dugula eta enpresak dagoeneko ia aukeratuak izanda, plastikozko kaxen eta motorren ekoizpena enpresa horien esku utziko genituzke. Material guztia gure lokalera iristean, hau da; motorrak, kaxak, filtroak, babes termikoak, energia iturriak eta aire-hodiak, gure kabuz aterki lehorgailua eraikiko genuke.

Bestalde, gure produktuaren montajea guk egingo dugu, modu honetan montajea azkarra eta efizientea izango da gure kostuak ahalik eta txikienak izateko.

Behin produktua eraikita, hainbat dendetan salgai jarriko genuke, adibidez, Leroy Merlin, Fnac, Carrefour, Mediamark. Gainera, Garberan adibidez, marketin kanpaina bat egingo genuke. Eta gure kabuz sare sozialetan produktua promozionatuko genuke, iragarkiak jarritz eta bideoak eginez, izan ere, gaur egun produktua ikustarazteko modu oso efizientea da.

Horretaz gain, erosleek gure produktuari buruzko informazioa nahiko balute, gure web orrira jo beharko dute. Bertan gure produktua erosteko aukera izateaz gain, gure produktuari buruzko informazioa eta produktuaren ekoizpen prozesua aurkituko dute.